ETAren gutuna enpresariei

Agur t'erdi
ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, zure elkarteko afiliatuei eta, oro har, enpresa ugazaba orori gure erakundeak egin ohi duen iraultza zerga ordaintzeko exijentzia bertan behera geratzen dela jakinaraztea eskatu nahi dizu gutun honen bitartez. Urtarrilaren 10a geroztik indarrean dagoen su-eten iraunkor eta orokorraren ondoriotzat hartu behar dute.
Aldi berean, zuk ordezkatzen duzun sektore sozial horrek duen eragin eta indarra kontuan izanik, Euskal Herrian konponbide justu eta demokratiko bat lortzeko ireki den aukera babesteko eta bultzatzeko eskatu nahi diogu, irekitako prozesua denon onerako izango delako.
Publikoki gutun honen berri eman ala ez zure esku uzten dugu, beste batzuetan ere ETAk bidalitako gutunen berri eman baitu zure elkarteak.
Adeitasunez
Euskal Herrian, 2011ko martxoan
Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.